

2024ko maiatzaren 15a.

Kaixo:

Belar-lanak egiteko garaia iritsi da, eta erabat sartuta gaude 2024ko belarrak biltzeko kanpainan.

Mezu honen bidez jakinarazten dizuegu **aurten berrikuntza batzuk izango ditugula makineria-zerbitzuetan Landaolaren % 30erainoko deskontua jasotzeko prozeduran**. Jarraian azalduko ditugu:

DESKONTUAK

2024an ere, ohikoa den bezala, lan batzuk Landaolaren bidez lagunduko dira: jarraian adierazten diren lan motak eta Landaolak hitzarmena duen zerbitzu-emaileek egindakoak. Profesionalki lan egiten duzuen erabiltzaileei % 30era arte emango zaizue laguntza. Beherapen edo laguntza horiek Landaolak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartu dituen dirulaguntzei esker bideratzen dira.

Nork jaso ditzake laguntza horiek?

ICM dirulaguntza onartua dutenek izango dute laguntza jasotzeko eskubidea.

Zer motatako lanak lagunduko dira?

Honako zerbitzu hauek jaso ahal izango dute laguntza:

- Belar-lanak: moztea, biltzea, biratzea, errotoenpaketatzea, entzintatzea edo zintarritzea, ereite zuzena.
- Artoa eta neguko belarra: lurra prestatzea, ereitea, biltzea, pikatzea, atoi-zerbitzua.

Makineria astunarekin egindako lanak baino ez dira lagungarriak.

Dirulaguntza prozedura

1- **Zerbitzu-emaileak bidalitako fakturaren zenbateko osoa kobratuko dizu (oinarria + BEZ).** Faktura egiterakoan, zerbitzu-emaileak **lan horiei dagokien dirulaguntza adieraziko du**, zenbateko osoarekin batera, Landaolarengandik zenbat jasoko duzun jakin dezazun.

2- **LANDAOLAKO DIRU-LAGUNTZA zuzenean ordainduko dizu LANDAOLAK.** Horretarako, Landaolara bidali behar duzu jasotako faktura landaola.kudeaketa@gmail.com helbidera.

3- **2024ko fakturak Landaolara bidaltzeko epeak itxiak izango dira, eta epe horien barruan bidaltzen diren fakturak soilik onartuko dira.**

Azken epetik kanpo bidalitako fakturen agiriak diru-laguntzatik kanpo geratuko da, Aldundiari egin beharreko ziurtapen-epetik kanpo dagoelako.

Fakturak **bidaltzeko epeak** honako hauek dira:

- **2024ko ekainaren 1etik 30era.**
- **2024ko azaroaren 1etik 30era.**

Fakturekin batera 4. orrialdean eransten den inprimakia: "aurkeztutako fakturak" bete eta bidali behar da.

4- Landaola behartuta dago laguntzak urteko lanetara bideratzera.

Urteko diru-laguntzen kopurua mugatua denez, zerbitzuei dagozkien fakturek dirulaguntzaren zenbateko osoa gainditzen badute, azken ziurtapeneko diru-laguntzaren ehunekoia edo portzentajea prorrateatu egingo da onuradun guztientzat.

Edonola ere, **baserritar batek 8.000 euroko laguntza metatua jaso ahal izango du urtean gehienez.**

5- Ustategiaz gain, makineria-zerbitzua ematen den lurzatiak identifikatu behar dira. Makineria-zerbitzuak diruz laguntzea nahi baduzu, **beharrezkoa da zerbitzu-emaileari lan egingo den partzelaren SIG kodea ematea**, hark fakturan txerta dezan. GIS kodea ez duten fakturak ez dira onartuko.

6.- **Aldundiko teknikariek lanak ikuska ditzakete.** Jardunbide desegokiren bat aurkituz gero, Landaolak eskubidea izango du baserritarrarentzako laguntza eteteko.

7- Laguntza hau jaso nahi duten baserritarrek erantsitako dokumentua bete eta landaola.kudeaketa@gmail.com helbidera bidali beharko dute sinatuta 2024/08/01 baino lehen.

USTIATEGIAREN TITULARRA:

IZEN-ABIZENAK:

HARREMANETARAKO TELEFONOA:

KORREO ELEKTRONIKOA:

USTIATEGIA:

USTIATEGIAREN IZENA:

USTIATEGI ZENBAKIA:

LAGUNTZA JASOKO DEN KONTU KORRONTEAREN ZENBAKIA:

.....

KONTU KORRONTEAREN TITULARRA:

Emandako datuak LANDAOLAK kudeatuko ditu eta helburu horretarako baino ez dira erabiliko. Bestalde, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datuak "Landaola 2024ko diru-laguntzen onuradunak" izeneko fitxategiaren parte direla. Fitxategi horren arduradun bakarra LANDAOLA da, eta araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen badira, datuak babesteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, landaola@landaola.eus helbidean eskaera eginez, gaian "datu pertsonalen babesa" testua adieraziz.

..... (e) n, 2024ko(a) n

Izen-abizenak:

Sinatua:

